

# ESKU-IDAZKIAK

## IX GORAPEN-ABESTIA

<sup>5</sup>Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,  
erbestaldian erri arrotzaren artean nengoala  
bertan-beera itzi ez nenduzulako;  
nire erruen negurrira epaitu ez nozulako,

<sup>6</sup>nire biotzeko asmo gaiztoen eskuetan be  
bertan-beera itzi ez nenduzulako.  
Illobitik atararik jaso zenduan nire bizia.

<sup>7</sup>Erru-semeai izentatuta egozan leoien erdian itzi  
izan nenduzun bertan-beera,  
aaltsuen azurrak zatitu ta indartsuen odola edaten  
daben leoien erdian.

Erbestaldian bertan-beera itzi nenduzun,

<sup>8</sup>itsas-gaiñean sareak zabaltzen dabezan  
arrantzale-taldearen artean.  
Gaiztakeriaren semeak billatzen dabezan eiztarien  
artean.

Estura ikaragarri aretan, zeure jakintzaz beraz izan  
nintzan irakatsia.

<sup>9</sup>Nire biotzean egiaren ezkutua sendotu zenduan.  
Auxe da itunpena billatzen dabenen itunpen-iturria.  
Zeuk itzi zenduan leoikumeen agoa;

<sup>10</sup>arein agiñak ezpatea lez dira,  
arein betagiñak lantza zorrotza lez.  
Arein egitamu guztiak suge-edena dira,  
arein asmo guztiak odola miazkatzera joten dabe.  
Orregaitik, zelatan diardue.

<sup>11</sup>Baiña ezin jaurti izan dabez nire aurka euren  
aginkadak,  
Zuk, ene Jaungoiko orrek, gizonen begietatik gorde  
izan nenduzun-eta,  
zure legea izentatutako aldirarte zaintzeko.

<sup>12</sup>Orduan zeure salbamena agertu zeustan.  
Ez nenduzun estutasunean bertan-beera itzi.  
Entzun egin zenduan nire laguntza-deadarra.

<sup>13</sup>Antzika nengoala, entzun egin zenduan nire  
bear-izanaren berbotsa.  
Atara egin zenduan beartsuaren arimea  
leoien kobako larrialdian,  
euren agiñak ezpatea lez zorrotzen dabezan leoia-  
kandik.

<sup>14</sup>Baiña Zuk, ene Jaungoiko orrek, arein agiñak  
lotu egin zenduzan,  
apalaren eta beartsuaren arimea urratu aal ez egien.  
Zorroan sartu zenduan arein miiña, <sup>15</sup>ezpatea beron-  
nen zorroan lez,  
zure morroietariko bat bera be zauritu aal ez egien.  
Zeure aal-izatea erakutsi zenduan Adan'en semeen  
aurrean;  
miragarriak egin zenduzan <sup>16</sup>beartsuarentzat.  
Su-katilluan isuri zenduan,  
sutan garbitzeko,  
ertilariak putz egiten dautsoen laban  
zidarra bikaintzen dan antzera  
zazpi aldiz garbiturik.

<sup>17</sup>Erriko dongak artegatu egiten ziran,  
nire aurka oiñazeak aldarrikatzen;  
atsekabetuta egoan egun guztian nire arimea.

<sup>18</sup>Baiña Zuk, ene Jaungoiko orrek,  
aizebaltza aizekirri arin biurtu zenduan.

<sup>19</sup>Artzaiñak arrapakiña leoien agotik ataraten  
dauanez  
askatu dozu beartsuaren arimea.